

ETA- ESTIMATED TIME OF ARREST

Delphine Pontvieux
Liss Nyet Publishing, LLC, 334 or.
Chicago, 2009

Delphine Pontvieux frantziarrak idatzitako lehen liburua da, eleberria ingelesez dago. Hortaz, fikzio arloan gaude. Baina interesgarria eta harrigarria dena liburuaren sinesgarritasuna da. Nahiz eta fikziozko liburua izan, eleberriaren funtsa Euskal Herriaren egoera politikoari lotuta dago erabat. Are gehiago, zenbait gertakizun bene-tan gertatu ziren. Izan ere, autoreak ez du soilik Euskal Herriaren historia, kultura eta inguru soziala ezagutu, baizik eta, konkretuki, poliziak (Hegoaldekoak zein Iparraldekoak), ekintzak, sasiarteko eta isilpeko lana, militantzia, presondegia, eta abar aipatzen dituenean, irakurlea atrapatzen du Pontvieux-ek *suspensezko* thriller honetan.

Harrigarriena da Pontvieux-ek ez zeukala Euskal Herriarekin inolako harremanik (haren ama, neskatoa zenean, Iparraldean bi urte bizi izan zen). Versailles-en jaioa, Australian, AEBn, Espainian, eta Herbehereetan bizi izana, 1998tik Chicagon bizi da. Kontua da gazte-denboran *Kortaturen* disko bat oparitu ziotela eta horixe izan zen hasiera; gero 1980ko hamarkadaren erdian jasotako Euskal Herriari buruzko berriek segida izan zuten, harik eta 2007an liburu idaztea erabaki arte.

2007an autoreak hamaika libururen irakurtzeari ekin zion (euskal historia, Franco denborako zapalkuntza, ETaren sorrera eta bilakaera azken 50 urteetan) Euskal Herriaren zegoen borroka ulertu ahal izateko. Giza berotasuna

falta zitzaion eta Fermin Muguruza-ri egindako amaigabeko galderei Fermin-ek berak erantzun zien. Geroago Ipar Euskal Herrira etorri zen deskribatu nahi zituen lekuak ezagutzeko, baita mendiak eskalatzeko ere (<http://www.buber.net/Basque/Features/Interviews/d.pontvieux.100326.php>).



1. irudia. *Eta - Estimated Time of Arrest* argitalpenaren azala.

Beste aldetik, eta literaturari dago-kionez, hona hemen Pontvieux-en autore ideala:

My ideal writer would be a cross between Edgar Allan Poe, Emile Zola, Albert Camus and Stephen King.

Liburua

Aipatu bezala, liburua thriller bat da. Pertsonaia nagusia, liburuaren azalean agertzen denez, leku okerrean denbora okerrean dago: 1992an berak egin ez duen ekintza bat leporatzen dio espainiar poliziak.

Autoreak ez du indarkeriazko afera baztertu, baina ETAr buruzko eraba-

kirik ez du hartu. Pontvieux-ek Euskal Herriaren egoera konplexua erabiltzen du istorio epiko bat narratzeko. Pertsonaia bakoitzak gatazkaren bere ertza adierazten du, irakurleak gatazka konplexu horren osotasuna nolabait eduki dezan.

Badirudi autoreak, John LeCarré balitz bezala, alde guztien ikuspuntuak, zehaztasunak, gorrotoak, inbidiak, gorabeherak azaltzeko aparteko idazle trebatua dela. Aldiz, eta esan bezala, Pontvieux-en lehen eleberria da.

Pontvieux-ek pertsonaia nagusiaren inguruko lekuak, komunitateak, familia eta lagunak usatuz eta beraietaz baliatuz, arazo potoloa ekartzen du mahaira: euskal independentziarena. Autoreak, nahi dituen fikziozko karaktereak eta abar deskribatuz, euskal separatismoari lekua ematen dio, beraren afizio pertsonalak (eskalatzea, natura, ekologismoa) agerian azaltzen diren bitartean.

E-postak

Eskalatzea eta hainbat ezaugarri zirela-eta, honako galdera hau egin nion Delphineri e-postaz:

«Ekologista, harkaitz eskalatzailea zarenez, eta zure eleberria kokatzen deneko lekuak ezagutzen dituzenez, zer esan dezakezu Faustinez [protagonista den neska] eta Delphine? Zenbat daukate biek komunean? Ez ote dauka zure eleberriak zeure biografiaren alde bat?».

«Kar Kar, hauxe da segur aski beti gehien galdetzen den galdera!

Egia da, azkenean, nire ahaleginak egin nituela jendeak bere buruari horren gainean galdetzeko.

Faustine-k nire antza dauka, ilearen luzeran izan ezik... baina karaktere guztietan nire izaeraren parte handi bat jarri dut.

Garrantzitsuena pertsonaiak erreal bilakatzea da (guk maite edo gorroto ditugun arren, horrek ez du inolako garrantzirik)

... bai, nik eskalatu dut harkaitz hori, komun horretan egon nintzen bera martxan zegoenean... baina zirrargarri topa dut bikoiztasun horrekin jolastea... jendeak galdetzea zer den biografikoa eta zer ez...

Hala ere, hori nire sekretua da, gordetzekoa.

Jendeak dio idazten dugula ezagutzen dugunaz, ezta?»

Izan ere, nire aburuz, idazle batek daukan gauzarik hoberena bere sekretuak gordetzeko gai izatea da. Fikzioak errealitatearekin harremana izan dezake, baina kontua da fikzioaren arkitektoa idazlea dela¹.

Gero hamaika interpretazio egon daitezke (euskaraz: zenbat buru hainbat aburu), baina idazlea da egia daukana. Kasu honetan, idazlea jainkoa bezalakoa da, bere «mundua» sortu duena.

Beste aldetik, lan baten aberastasuna, liburu baten aberastasuna irakurle bakoitzak «interpretatzeko» daukan posibiletasunean datza, bere sentimenduen, ezaguera eta abar luze baten arabera. Baldin eta liburu batek interpretazio asko badauzka, nire iritzi, idazlea ona da, oso ona.

Hortaz, gorde zure sekretua!

«Oso ederki esanda».

1. Gehiago sakontzeko, ikus Sormena literaturan eta zientzian: <http://www.karmelaldizkaria.com/upload/pdf/karmel-2007-3.pdf>, 5.-15. or.

Ondorioak

Liburu honen meritua da Euskal Herriaren egoera, ETArekin ados egon edo ez, argi eta garbi azaltzea, ingelesez gainera, hots, jende askorengana iristeko moduan. Horixe aipatu izan dute kritikari askotxok *Amazon.com* delakoan idatzitako kritiketan. Batzuek, gainera, liburuaren jarraipena eskatu dute.

Ez dugu lekurik liburuaren hainbat elkarrizketa interesgarri aipatzeko; hala ere, ene aburuz, adierazgarriena indar polizia frantziarren eta espainiarren buru biren artekoa da.

Liburua erabat gomendagarria da, ez soilik gaiarengatik, baizik eta irakurtzeko oso erraza eta erakargarria delako. Gaia, edukia, eta idazteko modua, hirurak batera obra batean. Ezin gehiago eskatu.

Falta zaiguna Delphine Pontvieux-i zorianak ematea da, eta ea liburuaren segida irakurtzeko parada izaten dugun.

Auto-edizioa

Liburua *Miss Nyet² Publishing* etxeak argitaratu du, Pontieux-ek berak sorturiko enpresa 2009ko uztailean.

Hortaz, ilustrazioak, koloreak, azala eta kontra-azala, papera... dena erabaki du autoreak.

Independentzia, batez ere maila pertsonalean, da Pontvieux-en ezau-garri nagusietarikoak. Beraz, inori eta ezeri itxaron barik, bere bidea hautatu zuen: auto-edizioa. Disko-industrian 10 urtez izandako esperientziak balio izan dio horretarako.

Liburuaren promozio eta zabalkuntzari ere ekin dio Pontvieux-ek. Hori dela-eta, autoreak euskaldunon artean bere liburua zabal dadin nahi du. Horretan ari da. Hori da gaur egun haren zereginetako bat. Haren lema ondokoa izanik:

Don't wait around for someone to discover your worth.

Liburu-saltzaile enpresa handitik kanpo, merkatu handitik at, frantziar autore honek, ingelesez idazten duen emakume honek, bere bidea egin nahi du. Bejondeiola!

(Delphine-ren argitalpenaren web gunea hauxe da:
<http://www.missnyet.com/>)

Joseba Felix Tobar-Arbulu

2. Ez anderea. Errusieraz, nyet-ek 'ez' esan nahi du.